

Santa Ana Eguna

Santa Anako Sagardo Eguna, Euskal Herriko aurrenekoa

Duela 40 urte hasi zen ospatzen Sagardo Eguna, Santa Ana egunean, hain zuzen. Hori horrela, ospakizun berezia izango da aurtengoa.

EUSKAL Herriko aurreneko Sagardo Eguna Astigarragan ospatu zen 1976ko uztailaren 26an, Santa Ana egunean, hain zuzen, Sagardoe-txeako datuen arabera. Beraz, aurten, 40 urte betetzen dira ordutik.

Astigar elkarte, kultura bultzatzailea

Sagardo Egunaren sortzaile eta bultzatzailea Astigar elkarte izan zen; 13-29 urte bitarteko gazteek osatutako elkarte, hain zuzen.

Astigar taldea 1976ko otsailean sortu zen, herrian kultur mugimendurik ez zegoela ikusita. Horrela, hainbat jarduera antolatzen eta sortzen hasi ziren: euskal dantza, solfeo, txistu, akor-

Sagardo Egunaren sortzaile eta bultzatzailea Astigar elkarte izan zen; 13-29 urte bitarteko gazteek osatua.

Santa Ana egunean ospatu ziren, eta ordura arte egiten zen sagardo botatzaileen lehiaketa ordezkatu zuen. Izan ere, herritar askorentzat aspergarria izaten zen lehiaketa hura, ezin baitzuten parte hartu.

tuz, erakusmahai bakoitzean hamabi edalontzi izaten ziren, eta erabili ondoren, urez betetako ontzi batean garbitzen ziren, hurrengoa zerbitzatu ahal izateko.

Astigarragatik, Euskal Herri osora

Astigarragan egindako aurreneko Sagardo Egun hark izandako arrakasta ikusita, berehala zabaldu zen Sagardo Egunak ospatzeko ohitura. Gaur egun, hamaika tokitan egiten da.

Era berean, sagardogileak ere konturatu ziren sagardoa kalera ateratzeak izandako garrantziaz, eta pixkanaka, sagardoa beraien zerbitzatu hasi ziren.

Astigar dantza taldea



Astigarrek larunbatean dantzatu du.

Soka dantza, 40garren urtez

*Emanaldi berezia emango du aurten
Astigar taldeak, Santio egunean bertan.*

BADIRA urte batzuk Astigar elkarte, eta bere baitan, Astigar dantza taldea sortu zirela; 40 urte, hain juxtu. Eta 40 urte hauetan, urtero-urtero, hutsik egin gabe, soka dantza egin da Santio

Martin Ormazabal eta Joxe Alberro omenduko

deoi eta euskera ikastaroak; esku pelota eta pala txapelketak; kultur asteak; mendi irteerak; hitzaldiak... Eta tartean, Astigarragako jaiak.

Jai partehartzaileak bultzatu nahian sortutako eguna

Astigarragako koadrilek antolatzen zituzten festak, Astigar elkarteak testigua hartu zuen arte. 1976ko urte hartan, jaietarako egitarau erakargarria eta partehartzailea osatzea izan zuten helburu.

Horretarako, hainbat ekitaldi antolatu zituzten: herri kirol erakustaldiak, euskal dantza eta eskulangintza erakustaldiak, dantzaldiak, marrazketa lehiaketa, trikitalarien diana, eta, horien guztien artean, sagardo lehiaketa eta dastaketa. Azken horiek

Makina bat aldaketa, Sagardo Egunaren 40 urteetan

Sagardo Eguna aurreneko aldiz ospatu zen hartan, Astigarraga eta Ergobiako sagardogile guztiak hartu zuten parte. Baina oso bestela egiten ziren gauzak, orduan.

Sagardogile bakoitzak 50 sagardo botila oparitu zituen, baina ez ziren beraiek izaten zerbitzatzen. Lehenengo urteetan, sagardo bakoitza kupel huts bat zeukan mahaiean aurkeztu zen. Kupel horiek herriko ardo biltegi batek uzten zituen, eta kupel bakoitzak barruan zeraman sagardoaren izena izaten zuen.

Bestalde, ez zen ohikoa nork bere edalontzia edukitzea, gaur egun egiten den moduan. Orduan, sagardogietako ohiturari jarrai-

Zipotza eta Sagardun

20 urte ingurutan Astigarrek antolatu zuen Sagardo Eguna, eta ondoren, Zipotza Elkarteak hartu zuen ardurara, Udalaren laguntzarekin. 2003an, berriz, Sagardun Partzuergoa sortu zen: Udalak, 14 sagardogilek eta 7 kultur taldek osatzen dute; tartean, Astigar eta Zipotza. Orduetik, Sagardunek antolatzen du Sagardo Eguna.

Ekitaldi bereziak

Sagardo Egunaren 40garren urteurren hau ospatzeko, makina bat ekitaldi antolatu dituzte iganderako, plazan: burdinaren forja erakustaldia, sagardo dastaketa, idi dema izango dira... Eta 12:00etan, ekitaldi berezia egingo dute udaltxean, antolatzailleek eta Astigar taldekoek. ●

egunean, uztailaren 25ean.

Hori ospatzeko, omenaldi txiki bat antolatu dute.

Aurreneko soka dantzan, 20 bikote

Urtero, Santio egunean soka dantza egiten da. Aurreneko aldiz, Astigar taldeko 20 bikote atera ziren dantzara, 1976ean.

Garai hartan, Martin Ormazabal eta Joxe Alberro aritzen ziren irakasle lanetan; orduko Argia dantza taldeko dantzariak, biak.

Hasiera hartan, Santio egunean dantzatzeaz gain, San Roke egunerako ere emanaldi bat prestatzen zuen Astigar dantza taldeak.

Udalbatzaren soka dantza, eguerdian

Gaur egun, Udalbatza osatzen duten zinegotziek dantzatzen dute aurrena. Aur-

dituzte.

ten ere, Foru plazan dantzatuko dute, eguerdiko 12:30etan. Normalean, dantzariak laguntzen diete auresku eta atzesku lanetan.

Arratsaldeko emanaldia, omenaldi eta guzti

Santio eguneko arratsaldean, berriz, Astigar dantza taldeko gaztetxoek emanaldia izaten da frontoian, 18:00etan. Aurten ere ez dute hutsik egingo.

Horrez gain, soka dantza egiten dela eta Astigar dantza taldea sortu zela 40 urte pasa direla ospatzeko, omenaldi txiki bat egingo diete garai hartako irakasleei: Martin Ormazabal eta Joxe Alberrori, hain zuzen. ●

Rafa Garaikoetxea
Mediku-Odontologoa
Kolegiatu Zenbakia 415

**Clínica Dental
ASTIGARRAGA
Hortz Klinika**

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

Pelotari 17 behea.
Tel. 943 33 00 89.
Mugikorra. 688 68 68 17
Astigarraga.



Garbiñe

// Kurtso berrirako
testu liburuak

// Ikastolarako
materiala

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUET!**

// Jostailu
didaktikoak

// Eskulanak

KALE NAGUSIA 33 BIS ASTIGARRAGA • 627 000 549